

Gerra

Felipe Juaristi

"Zalditeria Gorria"

Isaak Babel

euskaratzailea: Olga Mtz. de Marigorta / Roberto Serrano

Alberdania / Elkar, 2006

Isaak Babel, Odesako judua, 1920an Semyon Budionni kosakoaren erregimentuan sartu zen, poloniarren aurkako gerran. 1925ean, esperientzia horren fruitu, *Zalditeria Gorria* argitaratu zuen, gure mendebaldean argitaratu den ipuin-libururik onenetakoa. Judu bat kosakoen artean, kontraesan handia, garai hartan, eta kontraesan horixe da, hair zuzen, ipuinen oinarri eta akuilu. 1928an, Budionnik berak Babel salatu zuen. Burges txikiaren ikuspegia islatzea izan zen salaketaren oinarria, judu izatearenaz gainera. Libre atera zen, Gorkyk Babelen aldeko lana hartu zuelako, baina urte horretatik aurrera, diotenez, irtenbiderik gabeko bidean sartu zen. Isilik iraun zuen denboraldi batez, isiltasunera kondenaturik, beste idazleengandik aparte. 1935ean antzerki lan bat idatzi zuen, baina antzokietatik kendu zuten. Zinegidoia idatzi zuen, Eisensteinekin batera, baina zentsurak ez zuen onartu. Isiltasuna haren elikagai bihurtu zen. Ipuin bat idazten bazuen, baze kien inork ez ziola argitaratuko. 1939an atxilotu egin zuten.

Frantsesen aldeko espioitza lanak burutzea izan zen akusazioa. Babel Malrauxen adiskide baitzen, baina idazle frantsesak ez zuen ezer egiteko aukerarik izan. Jakin izan denez, Sobiet Batasuneko artxibategiak publikoari ireki zaizkionean, 15 eskuizkribu eta 18 koaderno, oharrez josiak, bahitu zizkioten. Denak galdu dira, tartean eleberri bat eta narrazio-liburu bat.

Lubiankan itxi zuten eta han, zigor eta torturapean, troskisten laguna zela aitortu zuen, garaiko aitorten ohikoa bestalde, eta "aberri"aren aurkako lanak egin zituela, gogoz eta nahita, hori ere ohiko aitortpena. *Zalditeria Gorria* ez zela garaiko Sobiet Batasunean bizi zenaren giroaren isla, baizik eta idazlearen beraren fantasia aitortzera ere iritsi zen, gogoz kontra, jakina.

1940an egin zen Babelen aurkako epaiketa, Laurenti Beriaren bulegoan. Hogei minutuz luzatu zen soilik. Dena dago aktetan jasota. Gero, tiroz hil zuten Lubiankako patioan bertan.

El Diario Vasco, 2007-03-16